

# ALCOIKO HIRI-NATURALIZAZIOKO ESTRATEGIAREN JARRAIPENA

*Posted on 01/03/2024 by Naider*

**Category:** [Albisteak](#)

**Tags:** [Alcoi](#), [Hiri-naturalizazioa](#), [Hirigintza jasangarria eta eko-hiria](#), [Naturalización urbana](#), [Urbanismo sostenible y eco-ciudad](#)

[Alcoiko Udalak](#) NAIDERen zerbitzu teknikoa du hiri-naturalizazioko [ALCOIbioUP!](#) Proiektuaren Adierazleen Neurketa eta Jarraipen Plana egiteko, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren [Fundación Biodiversidad](#)-en laguntzen bidez kofinantzatuta.

ALCOIbioUP! proiektuaren helburua hiriko ingurumen-baldintzak hobetzea da, hiri-eremu eta hiri-ertz degradatuak naturalizatuz eta lehengoratzuz, eta klima-aldaketaren aurrean erresilienteagoa den hiri bat lortuz. Aldaketekin herritarren osasunean eta Alcoiko bizigarritasun-baldintzetan ere eragin positiboa izatea espero da. Egin beharreko planaren helburu nagusia udalari birnaturalizatzeko prozesuaren neurketa- eta jarraipen-sistema bat ematea izango da.

NAIDERek trantsizio ekologikoaren eta hiri-ekologiaren arloko profesional-taldea jarri du proiektu honen esku.

---

Irudi nagusia: Joanbanjo

